

MINTZANET egitasmoaren bideokonferentzia tresna erabiltzeko gida praktikoa

Hamarkada beteko du aurten MINTZANETek, 10 urte sarean. Euskal herritarrei zein munduko biztanleei euskaraz online praktikatzeko modua eskaintzen diegu, eta gero eta gehiago dira gugana hurbiltzen ari diren euskal hiztunak. Mundu mailako pandemia lazgarrian gure hizkuntza praktikatzeko gogoak ez du etenik izan. Etxean konfinatu gaituzte, isolatuta egon gara, senideak, lagunak, ezagunak... ezin ikusi. Eta bat-batean gure eguneroko bizitza birtual bilakatu da.


Koronabirusaren krisiak MINTZANET egitasmoaren jarduna egonkortu du. Online den proiektua da, eta gaitzak komunikatzeko modu berriak ezagutzera behartu gaitu, horiek erabiltzen ikastera. Gizarteak teknologia berrietara egokitu behar izan du, eta euskarari dagokionez, hizkuntza-praktika alorrean, zulo hori MINTZANETek bete du.

Hala, azken hilabeteetan garatzen aritu garen bideokonferentzia tresna propioa, euskarazkoa, librea eta guztiz segurua dena aurkezteko garaia dela uste dugu. Aurrerantzean, MINTZANETeko erabiltzaileek egitasmoaren webgunetik bertatik egin ahal izango dituzue zuen mintzapraktika saioak, kanpo-zerbitzuetara jo beharrik izan gabe. Oraindik probak egiten ari gara, bidelagun-bidelariei gure tresna eskainiz, funtzionamendu egokia duela aztertuz, sor daitezkeen arazoak identifikatuz, eta horiei konponbidea bilatuz.


Laster aurkeztuko dugu sozialki, eta izango duzue albistearen berri. Baina, unea iritsi bitartean, MINTZANET egitasmoaren bideokonferentzia tresna erabiltzeko gida praktikoa prestatu dugu, zuen saioetan ondo molda zaitezten ziurtatzeko, zalantzak argitzeko, tresnak eskainiko dituen aukerak ezagutzeko.

Hona hemen MINTZANET egitasmoaren bideokonferentzia tresna erabiltzeko gida praktikoa:


Mintzaneteko koordinatzaileek bidalitako eskekak leiho honetara bideratuko zaituztete. Gela birtualera sartzeko ongi-etorri panela duzue hau. **Zuen izena idaztea** litzateke eman beharreko lehenengo pausua.




Jarraian, “Join meeting” edo “hitzordura sartu” aukera klikatu aurretik, emaiozue begirada bat beheko ezarpenei. Gogoratu mikrofonoa eta kamera aktibatuta izan behar dituzuela, edota baimenak eskatuz gero, “baiezkoa” eman behar diozuela.




Mikrofonoa ezgaituta duzuela irudikatzen du ikur honek. Mesedez, eman klik gainean, aktibatzeko.




Kamera ezgaituta duzuela irudikatzen du ikur honek. Mesedez, eman klik gainean, aktibatzeko.



Erabiltzaile edo lagun bat zuen mintzapraktikako saiora batzeko aukera duzue. Momentuz, bat eta bat, hau da, bikoteka, egingo dituzue saioak, beraz, ez egin kasurik ezarpen honi.




Atzealdea aukeratzeko eta aldatzeko aukera ezberdinak eskaintzen dizue ikur honek.




Ezarpen gehiago. Mikrofonoak eta kamerak ondo funtzionatzeko proba txiki bat egin dezakezue, nahi izanez gero, ikur hau klikatuz.

Behin dena ondo doala ziurtatuta, “Join meeting” edo “hitzordura sartu” aukera klikatu eta zuen gela birtualera sartuko zarete.



Hementxe ere, ordenagailuko sagua (edo mugikorretik sartuz gero, atzamarra) pantailaren behealdera eramanez gero, ezarpenak azalduko zaizkizue. Batzuk dagoeneko ezagunak ditugu (mikrofonoa eta kamera), baina aukera berriak agertuko zaizkizue ere. Ikus ditzagun:





Zuen pantaila gainerako partaideekin, zure mintzakidearekin, partekatzeko aukera emango dizu ikur honek. Hau da, zu ikusten ari zarena (adibidez, Interneteko bilatzailean zerbait begiratzeko bazabiltza, argazkiren bat, edozer) berak ere ikus dezake.



Txat-a. Estekaren bat, argazki, bideo, edo audioren bat, edo idatzizko edozein mezu bidali dezakezue. Adibidez, kamerak edo mikrofonoak huts egiten badu, bide hau erabil dezakezue elkarrekin komunikatzeko.



Emotikonoak, aurpegitxoak, keinuak etab. bidaltzeko ezarpena.



Gela birtualean, zuen saioan, zenbat partaide zaudeten ikus dezakezue. Eta bakarren bat gonbidatu nahi izanez gero ere, egin dezakezue.



Elkar ikusteko modua aldatzeko aukera emango dizue ikus honek. Bat eta bat, pantaila zatikatuan; hizlariaren araberrako agerpena; zuen aurpegia pantaila handian eta mintzakidearena txikian (edo alderantziz)...



Ezarpen gehiago. Zuen saioaren egoera aldatzeko aukera anitz dituzue. Batzuk, aurretik azaldutakoak, beste batzuk gehigarriak. Ikur garrantzitsuena eta erabiliena, beharbada, leihoa **PANTAILA OSOAN** jartzearena da. Ezagutu dezagun:



View full screen

“View full screen” edota “ikusi pantaila osoan” aukera klikatuz, leihoa pantaila osoa hartuko du. Atzera egiteko, berriz ere HIRU PUNTUTXOAK klikatu eta “exit full screen” edo “pantaila osotik irten” aukera klikatu (zuen teklaturako ‘Esc’ botoia erabiliz ere egin dezakezue).



Bideodeia, zuen saioa, bukatzeko sakatu telefono gorrian.